

BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2017-2020



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2017-2020



EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

ENPLEGUKO ETA GIZARTE
POLITIKETAKO SAILA

DEPARTAMENTO DE EMPLEO
Y POLÍTICAS SOCIALES

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia

Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco

Vitoria-Gasteiz, 2018

Lan honen bibliografia-erregistroa Eusko Jaurlaritzaren Bibliotekak sarearen katalogoan aurki daiteke: <http://www.bibliotekak.euskadi.eus/WebOpac>

Argitaraldia:

1.a, 2018ko otsaila

Ale-kopurua:

1.500 ale

© Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioa
Enplegu eta Gizarte Politiketako saila

Internet:

www.euskadi.eus

Egilea:

Boluntariotzaren Euskal Kontseilua

Argitaratzailea:

Eusko Jaurlaritzaren Argitalpen Zerbitzu Nagusia
Servicio Central de Publicaciones del Gobierno Vasco
Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Diseinua eta maketazioa:

Kabinetearen eta Komunikazioaren Zuzendaritza.
Enplegu eta Gizarte Politiketako saila

Inprimaketa:

Imprenta Dosbi

L.G.:

VI 10-2018

Aurkezpena

BOLUNTARIOTZAREN EUSKAL ESTRATEGIA 2017-2020 **Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak 2017ko urrian onartuta**

2001. urtean sortu zen Euskadin Boluntariotzaren Euskal Kontseilua, topaketarako organo gisa, eta honako helburu honekin: elkartasunari lotutako politiken gainean hausnarketa egitea eta jarduera koherentea, eraginkorra eta koordinatua sustatzea gizarte honetan boluntariotza-ekintza bultzatzeko zeregin zaila eta konplexua aurrera eroan ahal izateko.

Hainbat dira kontseiluek ezaugarritzat dituzten eta haien iraupena baldintzen duten testuinguruak eta aldaketak; hala ere, beti nahi izan dugu Kontseilu bizia, dinamikoa, betearazlea eta oso hurbila izan, boluntarioen errealitatearekin sentikorra izan, hein handi batean erakunde sozialek Kontseilua bultzatzeko bere gain hartu duten lidergo partekatuari esker.

Harrezkero, parte-hartze soziala bultzatzeko zereginen esku hartzen duten eragile guztien artean bide-orri bat zehazten eta partekatzen lagunduko digun estrategia bat ezartzen joan gara lau hilean behin. Duela gutxi **2017-2020** aldirako **Boluntariotzaren Euskal Estrategia** berria onartu da, eta horixe helarazi nahi diogu EAEko gizarte osoari.

Forma xumea du, jarduera eta plangintza handiak alde batera utzi dituelako, baina sakonean handizalea da, lan eta analisi partekatu bat duelako oinarri moduan. Sinergiak sortzen jarraitzera, lehentasunak identifikatzera eta ahaleginak eta baliabideak optimizatzen dago orientatuta. Herritarren parte-hartzea eta elkartasuna lortzeko bide luzea dela hartzen du oinarri gisa estrategiak, eta guztion artean, egunero, modu kontzientean edo inkontzientean, eratzen dugun eredu sozialak baldintzatzen du bide hori.

Seguruena, identifikatu diren erronka eta jarduera asko ez dira berriak, berritzaileak... baina ilusio berriez, aukera berriez eta laguntza berriez daude beteta. Horri esker, boluntariotza sendoa eta koherentea, politika sozialekin bat egiten duena eta, oro har, Euskadiren garapenarekin konprometituta dagoena lortu ahal izango dugu.

Zuk ere parte hartzea gustatuko litzaiguke. Eta, jakina, iradokizunik, proposamenik edo eskaintzarik baduzu atsegin handiz entzungo dugu.

Euskadi, auzolana, bien común!

Beatriz Artolazabal Albeniz
Enpleguko eta Gizarte Politiketako sailburua

Aurkibidea

1. Hitzaurrea	07
2. Boluntariotzaren eta jarduteko esparru orokorraren definizioa	09
3. Erronkak	11
4. Beharrak	14
5. Helburuak	17
6. Ildo estrategikoak	18
7. Nori zuzendua	20
8. Eragileak	21
9. Ekintza	22
10. Helburuak / Lerro estrategikoak / Jarduerak lotzeko koadro sinoptikoa	26
11. Egutegia	27

1. Hitzaurrea

Jendarte parte-hartzea eta boluntariotza, haren adierazpen nagusi bezala, jendarte demokratiko bat egituratzen duten ardatzetako bi dira. Batetik, denon onerako konpromisoak eta erantzukizunak hartzeko norbanakoen eta taldearen gaitasuna da; bestetik, gobernantza estilo osasungarri baten adierazpenik adierazgarrienetariko bat da, jendearen baliabideak aprobetxatzen baititu eta gaitasuna ematen diolako jendeari kontu publikoetan eragina izateko, kudeaketan parte hartzen duten eragileen arteko etengabeko elkarrizketaren bidez.

Horixe kontuan izanda, administrazio publikoek parte hartu nahi duten pertsonen lana aintzatesteaz gain, eurek jarduteko gaitasuna aldeztu behar dute, ahal den neurrian, parte hartzeko eremuak eta inplikaturako pertsona eta erakunde kopurua handituz.

Oraingo estrategia planteamendu horren barruan kokatzen da eta aurreko estrategiari ematen dio jarraipena, 2016an amaitu baitzen. Helburua alderdirik azpimarragarriak azaldu eta antolatzen dituen tresna lortzea da, eta ekintza koherentea zabalteko esparru orokor gisa balio behar du. Eusko Jaurlaritzako Enpleguko eta Jendarte Politiketako Sailaren ekimenez, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluaren esku sortu bazen ere,

administrazio esparrutik at atera nahi dute, zertarako eta jendarte parte-hartzea garatzeko eskumenak eta betebeharrak dituzten edo ekintzak egiten dituzten jendarte eragileentzako tresna izateko. Eta administrazioak sortutako ekimena den heinean, ekintza guztiek genero ikuskera eduki behar dituzte, desberdintasunak ezabatzeke eta emakume eta gizonen arteko berdintasuna sustatzeko.

Aurkezten ari garen agiria pertsona eta erakunde talde zabal baten lanaren emaitza da. Aurreko estrategia ebaluatuta edo kontraste jardunaldien bidez edo ideiak kudeatzeko saiokak eginez, ekarpen ugari egin dira eta harrezkero taldeetan jarri eta moldatu dira, sistematizazio eta ekintza proposamen bakarria sortzeko. Hortaz, talde lana izan da eta asmoa jarduteko esparru orokorra ezartzea izan da, eta esparru hori eraginkor bihurtzeko, jarduera batzuk iradoki dira.

Orain garrantzitsua da hurrengo urteetarako estrategia definitzen duten ezaugarriak aipatzea. Lehenengo eta behin, malgua da, hots, moldatzeko gaitasuna du, beharrezko aldaketak egiteko gaitasuna, beharizan berriei aurre egin ahal izateko eta inplementazioan sor daitezkeen aukerak esploratzeko. Bigarrenez, zabalik dago ideia berri interesgarriak hartzeko. Hirugarrenez, gardena eta jendaurrekoa da, eta berariazko gonbidapena egiten da erabil eta azter dezaten berori aberastu eta hobetzeko. Laugarrenez, errealista eta posibilista da, unean uneko testuingurura egokitzen da eta asmoa ez da berehalako erantzuna ematea beharizan, erronka eta jarduera guztiei, baizik eta lehentasunak markatzea eta ezarritako epean eta eskura dauden baliabideekin egingarria irizitakoa egitea. Bosgarrenez eta amaitzeko, parte hartzea bultzatzen du bai jatorrian eta bai garapenean, partaidetza eta boluntariotza osatzen duten eragileei ahotsa emanez.

Azken finean, 2017-2020 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategia Euskal Autonomia Erkidegoko herritar guztiei dago zuzenduta, herritarrok gure jendartearen garapenean eragile izan gaitzen.

2. Boluntariotzaren eta jarduteko esparru orokorraren definizioa

Estrategia hau diseinatzeko, Boluntariotzaren Euskal Kontseiluak 2013an boluntariotzarako ezarritako definizioa dugu abiapuntua, gure aburuz indarrean baitago oraindik ere:

Boluntariotza parte-hartze sozialaren adierazpide zehatz gisa ulertzen da, interes orokorreko eta izaera solidarioko jarduera sortak osatzen du, eta jarduera horiek irabazi-asmorik gabeko proiektu kolektibo baten inguruko pertsonak garatzen dituzte. Partaidetza horrek askea izan behar du, eta lan, funtzionario edo merkataritza harremanetara edo betebeharrak pertsonal edo juridikora lotu gabea.

Boluntarioek komunitateari zerbitzua eskaintzeko egiten dute lan, eraldaketa eta guztiontzako onura bilatzen dute eta beste jendarte eragile batzuen ekintzarentzat osagarri dira; hau da, ez da herri administrazioen erantzukizunaren utzikeria edo zerbitzu profesionalak ez ordaintzea estaltzeko sortu.

Esparru orokor gisa, 2012an Espainiako Boluntariotzaren Plataformak ezarritako jarraibideari eusten dio, izan ere, "Boluntariotzan sakontzea: 2020ra arteko erronkak" puntuan honakoa adierazi zen:

Etorkizunean boluntarioria zabaldu egin behar dela ulertzen dugu, baina batez ere sakondu egin behar da. Hori dela eta, boluntarioria irekian eta parte-hartzailean sinesten dugu, klase, kultura eta belaunaldi artekoa izango dena. Elkarrengana hurbilagokoak diren harremanak eta bi noranzkoko ikuspegia dituen boluntarioria nahi dugu, garrantzitsuena elkarrekiko erantzukizunak izatea helburu duena, pertsona batek besteekin eta guztiok komunitatearekin konpromisoak dituen; batzuek eman eta besteek jaso beharrea, guztiok eman eta guztiok jasotzen dugun komunitatea sortzeko. Ez dugu nahi lerro banatzaileak marraztea ardatz duen boluntarioriarik, aldiz, sinergietan eta bestelako partaidetza moduekin harremanetan sakonduko duena nahi dugu, hazten doazen beharriaz eta inork jorratzen ez dituen arazoari erantzun goiztiarra emanez.”

3. Erronkak

“2013-2016 aldirako Boluntariotzaren Euskal Estrategiak 2012an Espainiako Boluntariotzaren Plataformak ezarritako erronkak hartzen zituen bere gain. 2020ra artekoak direnez, gure iritziz agiri honetan jaso behar dira. Halaber, “EAEko boluntariotzaren 2015eko egoeraren analisi orokorra” txostenean ezarritakoak hartzen dira, indarrekoak baitira, orain arte egindako ebaluazioetan eta topaketetan. Euskal Autonomia Erkidegoaren errealitatera egokitutako laburtutako honako zerrendan artikulatuko ditugu:

01.- Jakintza eta informazioa hobetzea. Datuak ikertu eta jasotzeko zentroek, EUSTATEk, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteak eta administrazioko sailetako estatistika organoek bereziki boluntarioak eta jendarte partaidetza eduki behar dituzte aztertze helburuen artean, eta informazioa etengabe eta eguneratuta eskaini behar dute.

02.- Eskumen publikoak bereganatzea jendarte partaidetzaren esparruan ikuskera integral batetik ikusita, dimentsio guztiekin koherentea eta koordinazio esparrua definituta sail eta administrazioen artean. Bereziki garrantzitsua da tokiko esparruan, non ad hoc

zinegotzigoak ezarri behar baitira, partaidetza sustatzeko. Boluntariotzari buruzko gaiak ezingo dira, inondik inora ere, jendarte gaietan eskumenak dituzten sailletara mugatu.

03.- Autonomia erkidegoetako boluntariotzari buruzko araudia berriz aztertzea 20 urtez indarrean egon eta gero komenigarria da egungo erronkei egokitzea.

04.- Boluntariotza eta haren balioak hezkuntza sistema formalera batzea Hezkuntza zikloko etapa guztietan egin behar da, bai zeharkako moduan eta bai irakasgai espezifikoetan.

05.- Jendarte antolakundeak partaidetza eredu berriei egokitu behar zaizkie. Hortaz, boluntariotzaren kontzeptu ere egokitu behar da, baita harrera prozesuak, partaidetza proposamenak eta kudeaketa eta lidergo patroiak ere. Egitura horizontalen eredu orekatu bat bilatu nahi da, militantzia, ideologia eta arrazoia erlazioekin, elkarrekiko zaintzarekin, nahitasunekin, emozioekin eta pertsonala politikoa ere badela ulertzearekin elkartuko dituen; konpromisoa, erantzukizuna eta diziiplina dituen eredu bat, baina baita norberaren eta taldearen zaintza ere. Erakundeen eta bestelako jendarte eragileen arteko lankidetzak erak ere berriz aztertu behar dira.

06.-Espiritu eraldatzailea berreskuratzea Partaidetzaren eta erakundeen ideologia osagaia indartzeak indartze etikoa bultzatzen du. Lan egin behar da espiritu kritikoa jendarte ekimenaren alderdi eraldatzailea bermatu dezan. Esangura horretan, boluntariotza erkidegoan parte hartze arduratsu legez ikusi behar da, hots, zerbitzuak ematen diren bitartean, salaketa lana ere egin behar da, laguntza eta militantzia esparruak ondo uztartuta.

07.- Motibazioak kudeatzea. Garrantzitsua ez da norbait epe motzerako edo karitate asmoarekin edo asmo asistentzialistekin iristen ote den boluntariotzara, baizik eta ekintza garatzearekin batera motibazioak helduko ote diren eta konpromiso ideologiko, egonkor eta eraldatzaileetarako bidea hartuko ote duten. Boluntarioari lagundu egin behar zaio; hartara, laguntzaren «elkartasunetik» eta berehalako gogobetetzetik, "eraldaketaren elkartasunera" igarotzeko.

08.- Boluntariotzaren inguruko prestakuntzaren alde egitea partaidetza ere berriekin bat eginda. Aldaketak bideratzen dakien prestakuntza, erantzukizuna sustatzeari eta konpromisoari eta eraldaketari lotutako balioetan sakontzeari muzin egin gabe.

09.- Eragin politikoa Boluntariotzak eta jendarte partaidetzak garrantzia irabazi behar dute agenda politikoan, erreferentziazko solaskideak sortuz botere publikoekin eta eragin politikoa bultzatuz.

10.- Komunikazio hobetzea Komunikazioa tresna nagusia izan behar da erakundeetan. Ezin da eraldatu komunikatu gabe, eta komunikazioaren kudeaketa onak baino ez du eragina bermatzen, jendartean iritzia sortuz. Horrez gain, bide eraginkorra da partaidetzari, boluntariotzari eta horren jendarte ekarpenari lotutako balioak zuzen hedatzeko.

11.- Boluntarioen erakundeak egonkortzea Batetik, erakundeek jendarte oinarria zabaldu behar dute; bestetik, administrazio publikoek ulertu behar dute jendarteari ekarpenak egiten dizkiotela, bai zerbitzuak emanez eta bai jendarte demokratikoa sortuz. Hortaz, baliabide eta laguntza beharrezkoak eman behar dituzte erakundeek behar bezala gara dezaten euren lana.

12.- Partaidetza eta boluntariotzaren pluraltasun osoa sartu behar dute sareek, agentziek eta partaidetza bultzatzeko zentroek. Eredu berriak sortzea, jendarte ekintza tradizionalari zuzenean lotuta ez dauden esparru desberdin asko (kirola, kultura, aisialdia, babes zibila, ekologismoa, feminismoa...) sortzea eta formalki eratutako erakundeen inguruan kanal ugari ez egituratuak egotea kontuan harturik eragileek partaidetza aukera zabala daukate.

13.- Aurrera diskurtso konpartiturantz Partaidetza kontzeptu eta formen inguruko diskurtso konpartitua lagungarria izango litzateke herritar antolatuen rola argitzeko eta partaidetzan inplikaturako pertsonen proiektu ezberdin baina komuna definitzeko.

14.- Elkarrizketa enpresarekin. Elkarri eragiteko aukerak esploratzea, jendarte partaidetza eta elkartasuna enpresara hurbiltzeko tresnen bidez.

15.- Aurrera egitea genero berdintasuneko ikuskeran Ikuspegi hori boluntariotzan integratzeko ahaleginak egiteko, emakume eta gizonen egoera desberdinari buruzko azterketa sistematikoa egin behar da, ezberdintasunak ezabatzeraz eta berdintasuna sustatzeraz zuzendutako helburu eta jarduketaz bereziak batuz.

4. Beharrak

Goiago azaldutako erronkak berehala betetzeko beharrizan bihurtu daitezkeen arren, hausnarketa eztabaidaguneetan hauexek identifikatu dira.

01. Partaidetza eretan

- Partaidetza eta boluntarioria eredu desberdinak integratzea.
- Partaidetza eta boluntarioria esparru desberdinak (jendarte esku-hartzea, kirola, kultura, aisialdia, babes zibila, etab) integratzea.

02. Kudeaketan

- Erakundeetan boluntarioen protagonismoa handitzea.
- Boluntarioria arreta eta partaidetza prozesuak hobetzea.
- Jendarte oinarria handitzea eta espiritu eraldatzailea berreskuratzea.
- Egitura eta eredu malguagoak eta zabalagoak sortzea.
- Berrikuntza kontzeptua partaidetza sustatzea.

03. Prestakuntza eta aholkularitza

- Jendarte sareak administrazioaren funtzionamendua ezagutzea.
- Administrazio teknikiariak prestatzea, partaidetza eta boluntarioria susta dezaten.
- Boluntarioen eta euren erakundearen eskubideak eta betebeharrak ezagutzea.
- Boluntarioen lan zehatz batzuk egiteko beharrezko kualifikazioa lortzeko bideak eskura izatea.
- Komunikazio prozesuen, eragilearen eta tresnen gaitzea.
- Genero berdintasunean parte hartzen duten eragileak prestatzea.

04. **Boluntariotza eta partaidetza ikusgarri egitea**

- Partaidetzari, boluntariotzari, euren balioei eta jendarte ekarpenari buruzko ezagutza eta informazioa hobetu eta handitzea.
- Komunikabideen inplikazioa, partaidetza eta boluntariotza sustatzeko garaian.
- Erakundeen komunikazio tresnak optimizatzea.

05. **Erakundeen arteko lankidetzak**

- Topatzeko eta hausnartzeko esparru komunak sortzea.
- Koordinatzeko lan eta esparru sareak sortzea.

06. **Erakundeen arteko lankidetzak**

- Administrazioeko sailei eta organismoiei boluntariotza eta partaidetza zaindu eta sustatzearen garrantzia helaraztea.
- Instituzioen (tokiko administrazioak barne) arteko koordinazioa hobetzea, boluntariotzaren kudeaketa koherente eta eragingarria bermatzeko.

07. **Administrazioarekiko lankidetzak**

- Jendarte erakundeen rola argitzea.
- Boluntariotza hirugarren sektorearekiko (elkarrizketa zibileko mahaiak, zaharren kontseiluak eta abar) koordinazio esparruetan sartzea.
- Boluntariotzako lurralde agentziekin sarean lan egitea.
- EAEn baterako ekintzak (kanpainak, azterlanak, mintegi teknikoak eta abar) egitea.
- Tokiko administrazioekiko lan sareak sortzea.
- Jendarte erakundeentzako teknika eta finantza baliabideak handitzea.
- Izapideak kudeatzeko eta administrazioaren baliabideak eskuratzeko hobekuntzak.

08. **Beste eragile batzuekiko lankidetzak**

- Enpresarekin, sektore publikoarekin eta abarrekin lotutako boluntariotzaren aukerak esploratzea

09. Nazioarteko eremuan

- Gure mugez gaindiko boluntzariotza eta partaidetzari buruzko informazioa izatea, bereziki interesatuta Europan hurbilen dauzkagun herrialdeetan.

10. Ezagutza

- Partaidetzaren eta boluntzariotzaren jendaurreko aitortza adieraztea.
- Jendarte partaidetzaren prestakuntza eta boluntzariotzaren eskarmen-tua ofizialki egiaztatzea.

5. Helburuak

1. Boluntariotza eta parte-hartze soziala sustatzea, parte-hartzearen eta elkartasunaren kultura bultzatuta, herritar aktiboak eraikitze aldera.
2. Elkarte sarea indartzea, elkarte horietako kideen ahalduntzea sustatuz eta euren eskura baliabide egokiak jarritz, partaidetza eta jardun egokia errazteko; izan ere, berebiziko garrantzia emango zaio emakumeen ahalduntzeari eta emakumeok sektoreko erakundeetan zuzendaritzan parte hartzea handitzeari.
3. Antolakuntza eta kudeaketa eredu berriak aintzatetsi eta integratzea, partaidetzaren eta boluntariotzaren aniztasuna biltzeko.
4. Ekintza boluntarioaren eta parte-hartze sozialaren errealitatea ezagutaraztea, herritarrei eta jendarte eragileei horren garrantzia, balioak, aniztasuna, ezaugarriak eta adierazpide ezberdinak erakusten.
5. Partaidetzarekin eta boluntariotzarekin lotutako jendarte eragileen arteko koordinazioa erraztea eta jendarte sareak aholkularitza organoetan eta erabakimenetan parte hartzea sustatzea.
6. Boluntarioen prestakuntza sustatzea prestakuntza beharrezko duten atazetan eta kualifikazio horren eta boluntariotzaren bidez eskuratutako konpetentzien aintzatespena aztertzea.
7. Autonomia erkidegoan boluntariotzaren inguruan dauden arauak eta erroldak aztertzea ea egokiak diren eta hala badagokio, hobekuntzarako aldaketak proposatzea.

6. Ildo estrategikoak

11. **Ekintza boluntarioarekiko sentikorra eta aktiboa den herritartasuna eraikitzea.** Benetako elkartasun eta partaidetza kultura sustatzea, jendarte osoaren, ekintza boluntarioaren eta jendarte beharriazkoen erantzuna ematen laguntzeko beharriazkoen arteko zuzeneko lotura egonkorra ezartzeko. Horretarako, oso garrantzitsua da denon ondarean inplikaturako pertsonen eta taldeen rola aitortzea eta eurei laguntza ematea euren lana egin dezaten.

12. **Elkarte sare dinamiko baten garapena, ekintza boluntarioaren eta parte-hartze sozialaren erronka berriei erantzuna emateko gai izango dena.** Jendarte erakundeak partaidetza eta boluntariotza gauzatzen diren egiturak dira. Hortaz, beharrezkoa da neurriak hartzea boluntarioen arreta eta dinamizazio prozesuak bultzatzeko, ezinbestekoak baitira jendarte partaidetzako esperientzia arrakastatsu eta eragingarriak lortzeko. Halaber, erakundeak bultzatuko dira honakoa lortzeko: erakundeen iraunkortasuna, gardentasuna, modernizazioa eta izaera komunitarioa eta eraldatzailea.

13. **Boluntariotzaren eta partaidetzaren fenomenoek ulermena normalizatzea, jendarte eta komunitate eginkizuna nabarmenduz eta berau bultzatzen duten jendarte eragileek garrantzi eta koordinazio esparruak indartuz.** Lankidetzaren eta harreman sare baten eraikuntzan EAEko esparru guztietan aurrera egitea da, eta, horretarako, hirugarren sektoreak duen egungo egituraketa maila (sareak, federazioak, eta abar) eta gure komunitatean sendotzen ari den herri administrazioekin elkarriketarako espazioen (herritarren elkarriketarako mahaiak, kontseiluak eta abarren) aurrerapena aprobetxatzea.

14. **Jendarte eta politika eragina izateko gaitasuna duen jendarte sarea bultzatzea.** Jendartearen partaidetza –bertan gorpuzten da boluntariotza– jendarte demokratikoari eusten dion zutabeetako bat da. Partaidetza horretarako plataformak erakundeak dira, eta euren zerbitzu eta aldaketa proposamenak gai izan behar dira iritzi publikoa sortzeko, komunikazio prozesu ondo kudeatuen bidez eta gainerako jendarte eragileentzako baliodun solaskideak izan daitezen erreferenteak sortuz.

7. Nori zuzendua

Egungo strategiaren helburua herritar guztiak dira, esangura bikoitzean: inplimentazioaren ondoriozko lanaren onuradun gisa, eta denon ondasunaren kudeaketan norbanako bakoitzaren engaiamenduaren eta partaidetza aktiboaren bidez inplika daitekeen subjektu gisa.

Edu bertsuan, partaidetza eta boluntariotza sustatu, kudeatu, ikusarazi eta zehazteko aukera duten jendarte eragile guztiei zuzentzen zaie.

Azken finean, helburuak honakoak dira: erakundeetakoak ez diren eta lan solidarioa egiten duten pertsonak eta elkarteak izateko lege betebeharrak betetzen ez dituzten, baina xedeek, ezarpenak eta jardunak legitimatutako egitura ez arautuak.

8. Eragileak

Partaidetzaren eta boluntarioen ekintzaren inguruan dabilzan eragile ugari, eta inor alboratu gabe, honakoak lehenestea erabaki da (zerrendaren hurrenkerak ez du hierarkiarik adierazten):

- boluntarioak dituzten jendarte erakundeak eta sareak;
- jendarte erakundeak oro har;
- administrazio publikoak;
- EUDEL;
- partaidetza eta boluntariotzako agentziak;
- Boluntariotzaren Euskal Kontseilua.
- ikastetxeak;
- unibertsitateak.

9. Ekintza

A/ Sentsibilizazioa eta antzematea

01. Jendarte eragileekiko bilerak, estrategia jendarteratzeko eta eurenganatzeko, jarduerak batu eta iradokizunak jasoz. Estrategikoa eta zeharkakoa da.
02. EAEn sentsibilizazio kanpaina Boluntariotzaren Nazioarteko egunaren inguruan.
03. Ikastetxe eta unibertsitateetan sentsibilizaziorako etengabeko programa.

B/ Komunikazioan eta ikustaraztea

04. Erakundeentzako komunikaziorako laguntza lana. Estrategikoa eta zeharkakoa da. Beste proposamen batzuk baztertu barik, honako ideiak iradokitzen dira:
 - jendarte erakundeetako komunikazio arduradunen arteko topaketa.
 - Komunikabideekin bi urtez behin elkartzea, jendarte erakunde eta komunikabideetako profesionalekin.
05. EITB taldearekin lankidetzeta. EITBren laguntza eskatzea sentsibilizatzeko eta boluntariotzaren jardunbide egokiak nabarmentzeko. Estrategikoa eta zeharkakoa da.
06. Boluntariotzarekin eta jendarte partaidetzarekin lotutako teknologia aplikazioen garapena aztertzea. Gidaliburuaren argitalpen digitala egin daiteke, adibidez, jardun egokien gida, komunikabideentzako estilo liburuak gaika, termino eta kontzeptu glosarioa, partaidetzeta eta boluntariotza ereduak edo boluntarioentzako gidaliburu etikoa.

C/ Tokiko boluntariotza

07. Prestakuntza plana udal eragileentzat, boluntariotzari, partaidetzari eta hirugarren sektoreari buruz. Bherria proiektuaren garapena
08. Boluntarioen udal topaketak, elkar ezagutzeko, kontrastatzeko eta espiritu eraldatzaileak lantzeko.

D/ Informazioa eta ikerketa

09. Boluntariotza eta partaidetza protagonista duten azterlanak egitea. Hiru proposamen:
 - Boluntariotzak EAEn duen egoerari buruzko estatistika azterlana
 - Emakumeei eta boluntariotzari buruzko azterlana (Emakunderen lankidetzat bilatu);
 - Boluntariotzak EAEn duen egoerari buruzko txostena 2020, kualitatiboa.
10. EUSTATi, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteari eta administrazioko sailetako estatistika organoei jendarte partaidetza eta boluntariotza aztertzeke aldagaizat hartzea proposatzea. Estrategikoa da.

E/ Topaketak eta mintegiak

11. Boluntarioen topaketak. Gai teknikoak jorra ditzake edo elkarbanatzeko eta kontrastatzeko esparrua izan daiteke.
12. Partaidetza eta boluntariotzari buruzko mintegiak. Beste proposamen batzuk baztertu barik, Europako jardun egokiei buruzko bat iradokitzen da, partaidetzaren, boluntariotzaren eta gobernantzaren inguruan.

F/ Aintzatespena eta kompetentziak

13. Boluntariotzan eskuratutako prestakuntza eta esperientziaren aintzatespena garatzea, Lanbiderekin, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuarekin eta bestelako organo eskudunekin lankidetzan.

G/ Boluntariotza agentziak

14. Boluntariotza eta jendarte partaidetzako agentziak indartu eta sendotzea. Estrategikoa eta zeharkakoa da. Martxan dauden laguntzez gain, Kontseiluak agentziei eta erakunde sustatzaileei aintzatespen ekitaldia egitea proposatzen da, instituzioen arteko lankidetzaren ereduak direlako.

H/ Administrazioak eta legeria

15. Legeriaren egokitasunari eta partaidetzaren eta boluntariotzaren erordari buruzko txostena egiteko batzordea sortzea.
16. Galdetegia sortu, igorri eta jasotzea erakundeek datuak eman ditzaten.

I/ Hezkuntza eta unibertsitateak

17. Herkintzarekiko eta unibertsitateekiko harremana indartzea, esparru bien arteko lotura estutzeko.

J/ Boluntarioen lanaren aintzatespena

18. Boluntarioak aintzat hartzeko ekitaldia.

K/ Prestakuntza

19. Prestakuntza. Estrategikoa eta zeharkakoa da, zenbait jarduera estrategia honen atalean daude jasota. Puntu zehatz honetarako jarduera bi proposatzen dira:
 - Mintegi bat egitea boluntariotzaren edo pertsona eta baliabideen kudeaketaren arduradunekin, prestakuntza zelan jorratu aztertzeko.
 - Erretiroa hartzeko pronto dauden pertsonentzako prestakuntza estrategia garatzea.

Ekintza estrategikoak

Proposatutako 19 ekintzetatik 6 estrategikoak dira.

01.- Jendarte eragileekiko bilerak estrategia jendarteratzeko eta euren-ganatzeko, euren jarduerak eta iradokizunak aprobetxatuta.

04.- Erakundeentzako komunikaziorako laguntza-plana.

05. - EITB taldearekin lankidetzeta. EITBren laguntza eskatzea sentsibilizatzeko eta boluntariotzaren jardunbide egokiak nabarmentzeko.

10.- EUSTATi, Eusko Jaurlaritzako Prospekzio Soziologikoen Kabineteari eta administrazioko sailetako estatistika organoei jendarte partaidetzeta eta boluntariotza aztertzeke aldagaitzat hartzea proposatzea.

14.- Boluntariotza eta jendarte partaidetzako agentziak indartu eta sendotzea.

19.- Prestakuntza.

10. Helburuak / Lerro estrategikoak / Jarduerak lotzeko koadro sinoptikoa

Helburuak	Lerroak	Jarduerak
1.- Boluntariotza eta parte-hartze soziala sustatzea, parte-hartzearen eta elkartasunaren kultura bultzatzea, herritar aktiboak eraikitze aldera.	11 / 13 / 14	01/02/03/04/05/06/09/10/12/13/18/19
2.- Elkarte egitura eta sareak indartzea, bertakoen ahalduntzea sustatuz eta herritarrei zabaltzeko aukera eskainiz. Horretarako, partaidetza eta jardunbide egokiak errazteko behar bezalako baliabideak eskuratzea.	11 / 12 / 13	04/05/06/10/11/12/13/18/19/
3.- Antolakuntza eta kudeaketa eredu berriak aintzatetsi eta integratzea, partaidetzaren eta boluntariotzaren aniztasuna biltzeko.	12 / 13	06/11/12/16/
4.- Ekintza boluntarioaren eta parte-hartze sozialaren errealitatea ezagutaraztea, herritarrei eta jendarte eragileei horren garrantzia, balioak, aniztasuna, ezaugarriak eta adierazpide ezberdinak erakusten.	11 / 12	01/02/03/04/05/06/09/10/16/18/19/
5.- Partaidetzarekin eta boluntariotzarekin lotutako jendarte eragileen arteko koordinazioa erraztea eta jendarte sareak aholkularitza organoetan eta erabakimenetan parte hartzea sustatzea.	13 / 14	07/08/10/11/12/13/14/16/17/19/
6.- Beharrezkoa den esparruetan boluntarioen prestakuntza erraztea eta kualifikazio horren aintzatespena eta boluntarioen ekintzen bidez eskuratutako konpetenziak aztertzea.	12 / 14	04/06/11/12/13/19/0/
7.- Boluntariotzaren eta berorren errolden egungo araudia aztertzea, ea egokia den, eta hala badagokio, hobekuntzarako aldaketak proposatzea.	12 / 13 / 14	15/

11. Egutegia

2017	
Lehen seihilekoan	Bigarren seihilekoan
00.- 2017-2020 estrategia lantzea 03.- Ikastetxe eta unibertsitateetan sentsibilizaziorako etengabeko programa. 07.- Bherria plana (diseinua)*. 09.- Boluntariotzak EAEn duen egoerari buruzko estatistika azterlana 11.- EAeko buluntarioen topaketa	00.- 2017-2020 estrategia lantzea 07.- Bherria plana (garapena)*. 09.-Boluntariotzak EAEn duen egoerari buruzko estatistika azterlana 14.- Agentziak eta eta sustatzaileak aitortzeko ekitaldia: Bizkaia*. 16.- Inkesta bat igorri eta jasotzea erakundeek datuak eman ditzaten
Oharrak* 03.- Partaidetza agentzien bidez garatutako programen bidez 07.- Ebaluazioa eta aurrekontua kontuan izanda, hurrengo urteetan berriz egitea 14.- 2017 urtea proposatzen da Bizkairako, agentziaren ospakizun ekitaldia martxan daudelako dagoeneko	

2018	
Lehen seihilekoan	Bigarren seihilekoan
01.- Bilerak jendarte eragileekin*. 03.- Ikastetxe eta unibertsitateetan sentsibilizaziorako etengabeko programa. 04.- Komunikazioan laguntzeko plana: komunikazio arduradunen topaketa 05.- Lankidetzak EITB taldearekin: proposamena diseinatzea eta elkarrizketak*. 08.- Boluntarioen udal topaketak*. 09.- EAeko gazte-asoziazionismoaren egoerari buruzko diagnostikoa txostena aurkeztea*. 14.- Agentziak eta sustatzaileak aitortzeko ekitaldia: Araba. 14.- Agentziak eta sustatzaileak aitortzeko ekitaldia: Gipuzkoa. 19.- Mintegia boluntariotzaren arduradunekin edo pertsonak eta baliabideak kudeatzeko, prestakuntza zelan jorratu hausnartze aldera.	02.- Sentsibilizazio kanpaina EAEn*. 04.- Komunikaziorako laguntza-plana: biurteko topaketa MCMrekin. 05.- EITB taldearekin lankidetzak: lankidetzak zehaztea*. 10.- Partaidetzari eta boluntariotzari buruzko itemak lantzea, administrazioko ikerketa organoerak proposatzeko.
Oharrak* 01.- Eragileak eta egutegia zehaztea. Dagoeneko proposatutako erakundeak: Emakunde (ikus "09 oharra – 2019 urtea"), unibertsitateak eta hezkuntza (17 zenbakiko jarduerarekin lotuta). 02.- Boluntariotzaren nazioarteko egunaren (abendua) inguruan. 03.- Partaidetza agentzien landutako programen bidez. 05.- EITBk ondo hartuz gero eta lankidetzak zehazten baba, hitzartutako jardueren estrategiaren barruan sartuko da. 08.- Bherria planaren garapenarekin lotuta. 09.- Apirilean amaitzea dago aurreikusita. 10.- Jarduera 2019an jarraitzea, baldin eta organo eskudunek ondo hartzen badute (ikus 2019ko lehen seihilekoaren 10 zenbakiko jarduera).	

2019	
Lehen seihilekoan	Bigarren seihilekoan
<p>03.- Ikastetxe eta unibertsitateetan sentsibilizaziorako etengabeko programa.</p> <p>04.- Komunikaziorako laguntza plana: prestakuntza*.</p> <p>06.- Boluntariotzarekin eta partaidetzarekin lotutako teknologi aplikazioen garapena aztertzea*.</p> <p>09.- Emakumeen eta boluntariotzaren inguruko azterlana: diseinua*.</p> <p>10.- Administrazio jendarte ikerketarako organoekin elkarrizketa, partaidetzari eta boluntariotzari buruzko itemak sartzeko.</p> <p>13.- Lanbiderekin, Lanbide Heziketaren Ezagutzaren Euskal Institutuarekin eta bestelako organo eskudunekin elkarrizketak egitea, prestakuntza eta boluntariotzaren eskuratutako esperientzia aztertze*.</p>	<p>02.- Sentsibilizazio ekintza EAEn*.</p> <p>04.- Komunikaziorako laguntza plana: prestakuntza*.</p> <p>09.- Emakumeen eta boluntariotzaren inguruko azterlana: garapena*.</p> <p>12.- Partaidetzari buruzko mintegia: jardunbide egokiak Europan.</p> <p>18.- Boluntarioak aintzat hartzeko ekitaldia.</p>
<p>Oharrak*</p> <p>02.- Boluntariotzaren nazioarteko egunaren (abendua) inguruan. Oraindik zehazteke.</p> <p>03.- Partaidetza agentziek landutako programen bidez.</p> <p>04.- Beharrezan diseinua eta inplementazioa 2018ko topaketen arabera.</p> <p>06.- Garatu beharreko aplikazioak zehazteke daude.</p> <p>09.- Emakunderekin lankidetzan egin nahi da. Emakunderen hasierako proposamena ikus "01 oharra – 2018 urtea".</p> <p>10.- Ikus "10 oharra, 2018koa".</p> <p>13.- Ekintza gehiago egingo lirateke elkarrizketen emaitzen arabera.</p>	

2020	
Lehen seihilekoan	Bigarren seihilekoan
<p>00.- 2021-2024 estrategia lantzea</p> <p>03.- Ikastetxe eta unibertsitateetan sentsibilizaziorako etengabeko programa.</p> <p>09.- EAEko boluntariotzaren egoeraren txostena 2020 (kuantitatiboa): lantzea.</p> <p>11.- Boluntarioen lurralde topaketak*.</p> <p>15.- Partaidetza eta boluntariotzaren legeriari eta errollari buruzko txostena: batzordea eta garapena.</p>	<p>00.- 2021-2024 estrategia lantzea</p> <p>02.- Sentsibilizazio ekintza EAEn*.</p> <p>09.- EAEko boluntariotzaren egoeraren txostena 2020 (kualitatiboa): aurkezpena.</p> <p>15.- Partaidetza eta boluntariotzaren legeriari eta errollari buruzko txostena: aurkezpena.</p> <p>19.- Erretiroa hartzearen pertsonentzako prestakuntza estrategia garatzea.</p>
<p>Oharrak*</p> <p>02.- Boluntariotzaren nazioarteko egunaren (abendua) inguruan Oraindik zehazteke</p> <p>03.- Partaidetza agentziek garatutako programen bidez</p> <p>11.- Edukia eta metodologia zehazteke</p>	